



Eguberrietako Torneoko finalean da Patxi Zeberio

ETZI ▶ Urrutiaren aurka jokatuko du; binakakoan ere finaletik gertu dago Elduaingo erremontista

LABRITEN ▶ Ezkurra zen faborito eta 35 eta 32 irabazi zion Zeberio II.ak; «egoera onean» dela dio ▶ 6

PAKITA URKIOLA ▶ SUKALDARIA


«Eskola sortu zenetik aritu naiz hemen lanean»

Leitzako institutuan omena egin diote ▶ 7

Juani Alkorta margolari zizurkildarraren koadroak dira Jubilatuen tabernan

ALEGIA ▶ 2006ko urtarrilaren 9a arte izango dira bertan; besteak beste, akuarelaz eta hondarrez egindako paisaiak daude salgai ▶ 5

NEREA URBIZU



TOLOSA ▶

Usabal kirol eta aisialdi gunearen etorkizuna, kinka larrian

Aurreikusitako bazkide kopurura ez dira heldu eta balitete azoka gunere bilakatzea ▶ 2

Usabal kirolgunea. I. ETXEBESTE

▶ HITZAko harpidedunen arteko zozketa:

GORROTXATEGIren eskutik
Gabonetako
saski eder baten irabazlea.

PEIO IPINZA UGARTEMENDIA (ZIZURKIL)



HIRIGINTZA ▶

Usabal kirolgune berriaren etorkizuna, kinka larrian

Aurreikusitako erabiltzaile kopurura heldu ez direnez, ez du kirolgune izaten jarraituko; baliteke azoka gune bilakatzea

I. ETXEBESTE - N. LATABURU

Udal agintariek etsi egin behar izan dute azkenean. Izan ere, Usabal kirol eta aisialdi gunea zabaltzerakoan aurreikusi zuten erabiltzaile kopurua ez da horretara iritsi. Abendurako 5.000 bazkide izango zituela uste zuten proiektuaren sustatzaileek, baina ez da hala izan: erdiak ere ez daude izena emanda. Usabal kudeatzen dutenak egoeraren larritasuna estali nahian ibili dira azken hilabeteetan herritarrek ez kezkatzeko. Hala ere, itxia erabaki dute, egoerak horretara behartu dituelako.

«Izugarria da hainbesteko kostuak izan dituen eraikina itxi behar izatea, baina ez zaigu besterik geratzen», adierazi du Tolosako Udaleko kirol zinegotzi Andoni Imazek. Diru galera gehiago izan aurretik «erabaki larri» hori hartu behar izan dutela aitortu dute udal ordezkariak. Horrenbestez, Usabal kirol eta aisialdi gunea erabiltzen dutenak beste leku batzuetara joan beharko dute 2006ko urtarrilaren 15etik aurrera.

Tolosako udal arduradunek bilera egin dituzte eskualdeko herrietako alkateekin, eta guztien artean adostu dute

LEIDOR ARETOA

Usabal kirolguneak sortutako gastuei aurre egiteko, Leidorreko berritze lanak bertan behera utziko dituzte

Usabalen burutzen diren kirol ekintzak beste udalerrietara lekualdatzea. Esate baterako, aerobika Bidegoiango pilotalekuan emango dute hemendik aurrera, eta pilatesa Berrobiakoan. «Igerilekua erabiltzeko, berriz, Villabonako Olaederra kiroldegira jo beharko dute bazkideek eta erabiltzaileek. Sauna eta jacuzzi zerbitzuak ere ez dira faltako, Zumardi Handiko iturrian atonduko baitute horretarako gune hezea.

Bilera irekia herritarrekin

Hala ere, beste erabilera batzuk izango dituela jakinarazi dute. «Eraikina botatzeak gastu handiak ekarriko litzuke, eta, beraz, beste irtenbide batzuk proposatu behar izan ditugu», adierazi du Imazek. Besteak beste, urtean zehar Tolosan izaten diren azoka berezien gune bilakatzea pentsatu dute.

Baina erabilera hori zehazteko herritarren iritzia aintzat hartu nahi dute udal ordezkariak. Hori dela eta, bilera irekirako deialdia luzatu dute 2006ko urtarrilaren 13rako, ostirala; 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan izango da. Bertan bazkideek, eta herritar guztiek orohar, euren proposamenak aurkeztu ahalko dituzte. Bildutako iritziak, «xeheetasun guztietan eta arretaz» aztertuko dituzte udal ordezkariak. «Herritarren laguntza ezinbestekoa izango baita arazoari aurre egiteko».

Afera horren harira, Leidor aretoko berrikuntza lanetan ere izango da aldaketarik. Izan ere, Usabaleko gastuei aurre egiteko Leidorreko lanak bertan behera utziko dituzte, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lan horietarako emandako diru laguntza kultur ekimenetarako bideratuko dutela eman dute jakitera. Hori dela eta, Leidor aretoan 2006. urterako aurreikusten zizuten kultur ekimenak Ferialekuan egingo dituzte, besteak beste, «ekinean izango diren abesbatzen emaldiak eta antzezlan batzuk». Kontzertuak ere bertan izango dira egoera aldatzen den artean.



Baliteke Usabal azoka gune bilakatzea urtarrietik aurrera. I. ETXEBESTE

KIROL EKINTZAK ▶ NON

Tolosako Udalak jakitera eman ditu lekualdatzeetako batzuk, eta horien berri emateko gutuna igorriko die datozen egunotan Usabaleko bazkide guztiei. Informazio gehiago nahi izatera bertara jo daiteke edota 943 53 64 00 telefono zenbakira deitu.

JARDUERAK

Aerobik. Bidegoiango pilotalekuan.

Pilates. Berrobiako pilotalekuan.

Spinning. Villabonako Olaederra kiroldegian.

Mantenimendu gimnastika. Belauntzako Kultur Etxean.

Tai-chi. Orexako udaletxeko ganbaran.

Acuagym. Villabonako Olaederra kiroldegian.

Haur eta gazte aerobika. Ibarako Belabieta kiroldegian.

Haurtxoen igeriketa. Villabonako Olaederra kiroldegian.

Yoga. Izaskungu belazeetan.

Helduentzako igeriketa.

Villabonako Olaederra kiroldegian.

Hirugarren adinekoentzat gimnastika. Larraitzen.

Cycling. Eskualdeko errepideetan; egunero ibilbide ezberdinak egingo dituzte.

INSTALAKUNTZAK

Igerilekua. Villabonako Olaederra kiroldegia erabili beharko dute bazkideek. Gune heze bat egokituko dute Zumardi Handiko iturrian, sauna eta jacuzziarekin. **Kantxak.** Kasuan kasu libre daudenak erabiliko dira. **Gimnasioa.** Harizpe jubilatutako elkarteak berea utzi du.

ENTRENAMENDUAK

Neskak. Tolosako Uzturpe pilotalekuan bilduko dira astero. Lehenago hartua egonez gero Leaburuko futbol zelaian jardun beharko dute. **Mutilak.** Berazubini entrenatuko dute. Tolosak jokatzen duenean, berriz, Arratzainen.

iragarki laburrak ▶



Aduna. 608 m2-ko pabilioia alokairuan, garabi-zubiarekin, bulegoak jarrita. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.
Albiztur. Berrikuntza behar duen baserria salgai. Hiru solairu, bakoitza

200 m2-koa. 35.000 m2-ko lur-saila. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Alkiza. Bi familietzako baserria salgai. Berritzea. Informazio pertsonala. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Andoain. Berritutako etxebizitza altua, ikuspegi bikainak, igogailua eta terrazan solariumarekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Anoeta. Estreinatzeko, etxebizitza duplexean, 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Asteasu. 2 solairuko pabilioia salgai edo alokarian, 1050 m2, eta 250 m2-ko solairuartea, modu guztietako tresnekin eta hobekuntzekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Beasain. 45 m2 erabilgarriko apartamentua eta lokal komertziala salgai. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 100 m2-ko etxebizitza, berrituta, trasteleku handiarekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 105 m2-ko etxebizitza salgai, planta baxuan. Berritua. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Irura. Laskibar inguruan, bi logelako apartamentua, eraikuntza berrikoa. Garajea aukeran. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Legorreta. 3 hektareako lursaila saltzen da, sarbide onarekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Lizartza. Eraikuntza berriko pabilioak salgai, 920 m2-ko azken

moduluak. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Lizartza. 75 m2-ko etxebizitza, kanpoaldera, trasteleku eta bodegarekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Segura. Eraikitzen ari diren erantsitako 14 txalet, 297.500 eurotik hasita. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m2 dituen etxebizitza, berritua. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean azken apartamentua, eraikuntza berrikoa, 65 m2 erabilgarriak dituena. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko etxebizitza salgai. 3 edo 4 logelatako

aukera. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, 150 m2-ko etxebizitza, egoera ezin bodegarekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Alliri kalean, 105 m2-ko etxebizitza. Garajea eta lorategia. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, bi garaje itxi salgai. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Alokera-ko lokalak eta salgai daudenak ditugu, zonalde eta azalera ezberdinetakoak. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Maituna inguruaren atzealdean, trastelekuak salgai 8 m2-tik aurrera. Berriak. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

TURISMOA ▶

Iragana eta oraina, begi bistan

10 begiratoki jarri dituzte herriko puntu esanguratsuetan, «iraganeko eta oraingo ondarea guri eta bisitariei ekartzeko»; Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak bultzatutako ekimena da

NOELIA LATABURU

Turismoa bultzatu asmoz ekimen berria sortu du Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak. Herriko txoko esanguratsuenak begi bistan agertzen dituzten hiruki formako altzairuzko 10 prisma kokatu dituzte: Tolosako begiratokiak dira, hemendik aurrera gure paisaian parte hartuko duten begiratokiak, alegia. Kanpotarrentzat ez ezik, bertakoentzat ere baliagarri izango direla azaldu dute, gainera, bultzatzaileek, «iraganeko eta egungo ondarea gurera ekartzeko».

Bada, hirigunean interes berezia duten iraganaren eta orainaren lekukotasunak bistartzen dituzte, eta espazioa ulertzeko, sentitzeko eta pentsatzeko baliagarriak izango dira. Iragan astean inauguratu zituzten puntu hauek, eta, Fundazioko koordinatzaile Gurutze Zubeldiak eta Tolosako kultur zinegotzi Andoni Iturzaetak jakitera eman zutenaren arabera, lau helburu nagusi bete nahi dituzte; bat, Tolosan garrantziko ondarea dagoela eta guztion eskura dagoela jakinaraztea da. Horretarako, edukia «diseinu erakargarriaz eta erraz ulertzeko moduan» azaltzen dira, bertaraten direnak gainontzeko begiratokiak ere bisitatzea bultzatzeko modukoak. Bigarrena, hiritar bakoitzari aipatu ondarea bere nortasunaren zati dela sentiaraztea da. Herria ikusterakoan, kultur mailan nahiz naturakoan historian zehar izandako aldaketan testigantza gisara begiratzea da hirugarren xedea. Eta, azkenik, «kanpotik datozenek izan dezatela hirigune osoa bisitatzeko aukera, ezau-garririk nagusienak interpretatzeko baliabideekin».

Erabiltzaileek erraz ikusiko dituzten elementuak dira; izan ere, toki argietan daude. Halaber, puntu horietako bakoitza ibilbide osoaren zati bat bezala dago prestatua. Era honetan, prisma bakoitzaren aurrean dagoenak antzeko beste 9 interes gune badituela jakin ahal izango du. Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak begiratokiak ezarri ditu, baina bestelako erraztasunak ere ezarri dizkie bisitariei eta bisita egiteko liburuxkak ere argitaratu dituzte; eduki guztien laburpena eskaintzen dute liburuek —euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez—, bai eta *Ikusi eta jakin gehiago* izenburupean, ondareaz ikertzeko hainbat baliabideren azalpenak ere.

Proiektu hau Tolosako Udalak Eusko Ikaskuntzari eskutatako ikerketa batean oinarriturik dago, Tolosako Udalaren, Kutxako Gizarte Ekintzaren eta Tolosaldea Garatzenen diru laguntzarekin garatua. Ikerketalana Ana Galdosek egin zuen, *Gure inguruari begira, gure historiari begira* izenburupean. Testuak, berriz, Guadalupe Larrartek egokitu ditu.



Ibaiondoko begiratokia; Errota, Zerkausia, Idiakez Jauregia eta Nafarroako zubia ikus daitezke. N. LATABURU

10 PUNTUAK ▶ KOKAPENA ETA IKUSPEGIA

1. BEGIRATOKIA

Kokapena. Ibaiondon, Nafarroako zubiaren, Zumardi Txikiaren eta Igarondo ibilbidearen inguruan.
Ikuspegia. Errota, Zerkausia, Santa Klarako komentua eta Nafarroako zubia.

2. BEGIRATOKIA

Kokapena. Ibarra eta Zubi berria batzen dituen bideturtean.
Ikuspegia. Zubi berria, Tolosana paper-fabrika eta Santa Klarako komentua.

3. BEGIRATOKIA

Kokapena. Zabalarreta parkean.
Ikuspegia. Zabalarretako parkea eta Zabalarretako jauregia.

4. BEGIRATOKIA

Kokapena. Eroskiko parkingean, lurre auzoan.
Ikuspegia. Española paper-fabrika, lurraramendi jauregia eta Ongintza etxea.

5. BEGIRATOKIA

Kokapena. Pedro de Tolosa

ibilbidean, Antonio Maria Labaien plazatik gertu.
Ikuspegia. San Estebango ermita.

6. BEGIRATOKIA

Kokapena. San Frantzisko ibiltokian, Gernikako Arbolenan alturan.
Ikuspegia. Gernikako Arbolen loretegiak, Elosegi markesaren jauregia.

7. BEGIRATOKIA

Kokapena. Triangulo plazan.
Ikuspegia. Gaztelako Atea,

Aldundiaren eraikuntza (Kultur Etxea) eta Vargas markesaren jauregia.

8. BEGIRATOKIA

Kokapena. Plaza Berrian.
Ikuspegia. Plaza Berria.

9. BEGIRATOKIA

Kokapena. Arkauten.
Ikuspegia. Arkauteko parkea.

10. BEGIRATOKIA

Kokapena. Arramelen.
Ikuspegia. Erruki-etxea, bide erreala eta Arramele zubia.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ANOETA ▶ POLITIKA

Plataformaren alegazioa udal ordenantzei

Herri batzarra deitzea eta «benetako» azterketa ekonomiko egitea, eskaerak

ERREDAKZIOA

Anoetarrok Auzolanean herri plataformak alegazioak egin dizkio Anoetako udalbatzak azaroaren 10ean behin-behineko onartu zuen 2006ko ordenantzen proposamenari, «herri borondatea errespetarazteko, herritarren partehartzea bultzatuz eta anoetarren interesak defendatuz», ohar batean azaltzen duenez.

«Ordenantzak ezkutuan prestatu dira, herritarrek parte hartzeko aukerarik izan gabe, Udal Batzarrera iristen direnean erabat itxirik daudelarik, proposamenak egiteak zentzurik ez duelarik, aldaketak ez direlako egingo», dio aurkeztutako alegazioak.

Tasa aldaketak justifikatze-ko «ez da inongo azterketa ekonomikorik egin, beraz, ezinez-

koa da jakitea aplikaturiko koefizienteak egokiak diren ala ez». Horren harira herri plataformak gaineratzen duenez, «beste herriekin konparaketa egin denean beti prezioak igozteko izan da. Horrela, aukeraturako herriak —Antzuola gehien— interes horrekin bakarrik aukeratuak izan dira».

Anoetarrok Auzolanean-ek susmoa du, «alkateak berak horrela adierazi duelako, inbertsioei aurre egiteko tasak igo egin direla, eta hori ezin da egin, legeak ere hori galarazten du». Alegazioa ondorengo eskaerak eginez amaitzen dute: «Benetako azterketa ekonomikoak egitea tasen aldaketa proposatzeko eta herri batzar ireki bat konbokatzea ordenantzez hitz egiteko eta denen artean egokiak diren tasak erabakitze».

ALKIZA ▶ EGUERRIAK

Gaztain jatea, kantujira eta tortila lehiaketa, gaur

ERREDAKZIOA

Eguberrien baitan ekitaldi bereziak antolatu dituzte gaurko Alkizan. Alde batetik, herriko abesbatzak gaztain jatea eta kantujira prestatu ditu, 19:00etan hasita, plazan. Horrez gain, alkizar talde batek Udalarekin batera I. Tortila

Txapelketa antolatu du gizonzkoentzat.

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duenak tortila etxean eginda 19:45erako eraman behar du herriko plazara. Epai-le lanetan emakumezkoak ariko dira eta irabazleak txapela eta mantala jasoko ditu sari moduan.

IRURA ▶ EGUERRIAK

Haur eta gaztetxoentzako egitarau oparoarekin jarraitzen dute herrian

Gaur puzgarriak eta bihar Agenda 21 egitasmoari buruzko ekitaldia

ERREDAKZIOA

Iruran antolatu dituzten Eguberrietarako ekitaldiek aurrera darraite. Gaur bertan, 17:00etan hasita, puzgarriak izango dira haur eta gaztetxoentzat frontoian. Bihar, Agenda 21arekin lotuta dagoen egitasmoa egingo dute Trinketean, 17:30ean hasita. *Zer nahi duzu zure herrirako?* mezurakin parte hartu nahi duten guztiek postal bat egin ahal izango dute. Bertan, datorren urtera begira herrirako nahi duten hori Udalari eskatu eta norberaren konpromisoak idatziko dira.

Etzi, hilaren 30a, merienda izango da plazan, 17:30ean, haur eta gazteentzat. Larunbatean, herriko plazatik 10:00etan aterata mendi ibilaldia Loatzo mendira eta egun-pasa.

Urte Berri Egunean, igandea, meza nagusia parrokian



Behi Bi's taldeak txobxongilo emanaldia eskaini zuen atzo. I. GARCIA

11:00etan. Datorren astelehenean, ikastolan eta 17:30ean, ipuin musikatuak *Patxi Hernando Otxe* kontalariarekin. Urtarrilaren 3an, asteartean, erromeria haur eta gazteentzat Irrintzi taldearekin, 17:30ean frontoian.

Urtarrilaren 4ean, asteazkenean, Kulturuneko bigarren

gelan eta 17:30ean, antzerki irakurria Irurako haur eta gaztetxoek eskainia. Errege Eguneko bezperan, 18:00etan, jaiotza lehiaketako sarien banaketa plazan; ondoren, 18:30ean, txokolate beroa bizkotxoekin, eta 19:00etan kalez kale Errege Magoen etorrera eta opari banaketa.

ASTEASU ▶ EGUERRIAK

Haurrentzako zinema emanaldiak antolatu dituzte Eguberrietan

ERREDAKZIOA

Asteasuko Udalak, gurasoen elkarteak eta kabalgata antolatzeko taldeak Eguberrietako egitaraua antolatu dute. Haurrentzako filmak jarri dituzte egitarauaren ardatz, eta udal-letxe zine gelan erakutsiko

dituzte. Horrela, atzo eman zuten *Txoritxoak* filmaz gain, bihar, 16:00etan, *Azti irakaslea* filma emango dute. Ikus-entzunezkoaren ondoren, guraso elkarteak prestatuta, merienda eskainiko zaie haurrei. Hurrengo emanaldia datorren astean izango da, urtarrilaren

3an, asteartea. 16:00etan, *Rotots* filma eskainiko dute.

Datorren astean urteroko ekitaldia izango da Asteasuko kaleetan zehar, hots, Errege Magoen kabalgata. 20:00ak aldera hasiko da ekitaldia, urtarrilaren 5ean, Errege Eguneko bezperan, noski.

ANOETA ▶ AGENDA 21

Agenda 21 egitasmoa plazaratzeko ekitaldia burutuko dute gaur plazan

ERREDAKZIOA

Eguberrien egitarauaren baitan, eta Agenda 21 prozesua plazaratu nahian, gaur 17:00etatik 19:00etara kale dinamika izango da Anoetako plazan. Bertara hurbiltzen diren umeek *Altxorraren bila*-ra jolasteko aukera izango dute.

Altxorra, kasu honetan, parte-hartzaile guztien artean asmatu beharko duten esaldi esanguratsu bat izango da, hondakinekin eta birziklapenarekin zerikusia duen esaldia. Horretarako, birziklapenarekin harremana duten zenbait proba gainditu beharko dituzte partaideek. Haurrak taldetan

banatuko dira, eta talde bakoitzean begirale bat egongo da; partaideek taldearen logoa eramango dute aurpegian. Haurrak jolasean ari diren bitartean, ekitaldira agertzen diren gurasoei herriko Agenda 21ari buruzko azalpenak emango dizkiete antolatzaileek.

Bridge
Luzuzkoak

BRIDGE 2005, S.L INGELESA

- Haur, gazte, helduentzat.
- Taldeetan edo bakarka.
- Azterketa prestaketa: Cambridge University, H.E.O....
- Interprete eta itzulpen zerbitzuak

943 652 373 - 680 222 526
bridgetolosa@yahoo.es

Pablo Gorosabel, 2-1A • 20400 Tolosa - Gipuzkoa

Estetikako Zentru Integrala

Maite

Corputz edota aurpegiarako tratamenduak

Opari paregabea.

9:00 - 13:00
14:30 - 20:00

Errementari kalea - TOLOSA - 943 67 03 38

ALEGIA ▶ MARGOLANAK

Juani Alkortak egin paisaiak, bisitatzeko

Urtarrilaren 9ra arte egonen dira ikusgai Alegiako Jubilatuen tabernan

NEREA URBIZU

Jadanik 15 egun dira Alegiako Jubilatuen tabernan Juani Alkortaren margolanetako batzuk ikusgai daudela. Zizurkildarraren lanek denbora gutxi dute, izan ere, margolanetan hasi zenetik sei urte besterik ez dira igaro. Tolosako Artea eskolan hasi zen bere margoaren inguruko formakuntzan, Olivia Sanchezekin. Astean behin soilik klaseak hartuz asko ikasten dela erakusten dute artelan hauek. Apurka-apurka, hainbat koadro egiten joan da, eta honela jarraitzeko asmoa du.

Erabiltzen dituen teknikak anitzak dira; olio, area edo hondarra, pastela eta azkenaldian akuarela, besteak beste. Alegiako Jubilatuen tabernan ikusgai dauden artean, akuarela egindakoak daude, eta hain arrunta ez den hondarrez egindakoak ere.

Argiari garrantzia handia ematen dio Juani Alkortak: bere margolanetan, kolore ar-

gien erabilera agerian gertzen da gehienetan, eta hori zaintzen eta bilatzen saiatzen da. Dena dela, «hori ikasten den zerbait da, denborarekin eta praktikarekin lortzen da».

Erakusketa honetan paisaia asko ikusteko aukera dago, hori baita Juani Alkortak gustuko duen irudia: naturak eskaintzen dizkigun irudiak, elementuak. Horregatik, ez da harritzekoa loreak, itsasoak, Euskal Herriko txoko ezagunen bat edo ilunabarreren bat ikustea. Loreen irudi guztiak akuarela eginak daude, izan ere, «akuarela da teknikarik zailena, eta loreak errazena omen dira akuarelairekin egiteko».


Hau da Juani Alkortaren lanak ikusteko aukera bakarretakoa, ez baitu inoiz kaleratu, azaroko merkatuan ez bada. Gainera, ez du beste erakusketan batean jartzeko beste datarik, eta, printzipioz, asmorik; «ia kasualitatez izan zen Alegiako Jubilatuen tabernan jartzeara». Berak egiten dituen



Gaztelugatxe. Juani Alkortak modu ederrean irudikatu du Gaztelugatxe, Bermeo inguruko txoko zoragarri hura. Badirudi, edozein momentutan, itsaso usaina bertatik aterako dela. N. URBIZU

lanak afizioz egiten ditu, asko lasaitzen du margotzeak. «Lasaitasun apur bat behar da, eta margotzeak berak ere lasaitu egiten nau».

Gustuko duen olio margotzea da. «Kostatu egiten da, baina begietarako agian atseginena ere bada». Esan bezala, natura, paisaiak dira nagusi, abstrakturen bat ere egon arren. Dena dela, ez da margolariari gehien gustatzen zaion estiloa, «ez baita erraza ulertzeko». Orain, Juani Alkorta beste koadro bat egiten ari da, baina ez da paisaia bat, emakume bat, baizik. Espero dezagun noizbait ikusi ahal izatea. Jakin ere, beti bezala, hauek salgai daudela, urtarrilaren 9a arte.



Neska hondartzan. Kolore bereziz hornitu du itsasoa. N. URBIZU

hitza^k

zure marrazkia

argitaratuko du!

Nola ikusten duzu zure herria?

bidali zure marrazkia!

3 eta 12 urte arteko haurrak,

bidali zuen marrazkiak HITZAko egoitzara (Araba etorbidea 5, atzea Tolosa 20400), zuen izen-abizenak, adina eta marrazkiaren azalpen labur batekin). Marrazkiaren formatua: DIN A4

Parte-hartzaileen artean sariak zozketatuko ditugu. Marrazkien erakusketa egingo du urtarrilean Tolosako Alde Zaharra Merkatarik Elkartek.

• BAZAR AMIANO	KORREO, 44	• SHANTI KIROLAK	RONDILLA, 11 Bis	• GORROTXATEGI GOZOTEGIA	PLAZA ZAHARRA, 7
• DAKARO	KORREO, 50	• BERMUDEZ FRUTATEGIA	RONDILLA, 19	• ARANBURU LIBURUTEGIA	SOLANA, 7
• MAITE GOXOKIAK	KORREO, 19	• MUÑAGORRI HARATEGIA	RONDILLA, 5	• OGI-BERRI	ESKOLAPIOETAKO LORATEGIAK, 1
• IRURA OKINDEGIA	KORREO, 50 (kaletartean)	• KINU	RONDILLA, 17	• OGI BERRI	NAGUSIA, 13
• ALTUNA HARATEGIA	KORREO, 44	• ALEJANDRO GOYA HARATEGIA	RONDILLA, 23	• NATURAL BODY - B.COLLADO	NAGUSIA, 25
• SUKIA HARATEGIA	KORREO, 39	• XIRIMIRI TXOKOLATEGIA	ERREMENTARI, 40	• KIMETZ	NAGUSIA, 23
• LA CASA AZUL	KORREO, 21	• INTERFILM	ERREMENTARI, 44	• GORROTXATEGI DIETETIKA	NAGUSIA, 2
• OGI ONA	KORREO, 37	• LIZARRALDE HARATEGIA	ERREMENTARI, z/g	• PIRULO'S	LEITZA z/g
• NOOR	KORREO, 16	• BILINTX LIBURUDENDA	AROSTEGIETA, z/g	• EDEL LIBURUDENDA	LEITZA z/g
• EZEIZA GOZOTEGIA	RONDILLA, 34	• ZUNBELTZ DISKAK	AROSTEGIETA, 9	• EL BACALAO GOXOKIAK	KORREO, 51 (KALETARTEAN)
ALDE ZAHARREKO MERKATARI ELKARTEA					

ERREMONTA ▶

Eguberrietako Torneoko finalerako sailkatu da Zeberio

Urrutiaren aurka jokatu du etzi; fisikoki zein moralki «oso egoera onean eta ilusio handiarekin» aurkitzen dela dio



Etzi jokatu du finala Zeberio elduindarrak Urrutiaren aurka. JON URBE / ARGAZKI PRESS

ERREDAKZIOA

Patxi Zeberio elduindarra pilotaleku motzeko Eguberrietako Erremonte Torneoko finalerako sailkatu da Koteto Ezkurra, banakako egungo txapeldunaren aurkakoan garaipea lortu ondoren. Hain zuzen ere, herenegun jokatu zuen *Zeberio II.a* finalerdia Iruñeako Labrit pilotalekuan eta 35 eta 32ko emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka elduindarraren alde, faborito nagusia Ezkurra izan arren. Izan ere, apustuetako diruak hala erakusten zuten: 100-30 Ezkurraren alde, alegia.

Zeberio maila oneko partida jokatu zuen; ez, ordea, Ezkurrak, ez baitzen pilotaleku motzera egokitu eta deseroso jokatu zuen partida osoan. Hasiara ezin kaskarragoa izan zuen, Zeberio eginko lehen 6 tantoetatik 3 Ezkurrak saketik eginko faltak izan zirelako, eta hutsegite horiek txapelduna

partidatik ateratzea eragin zuten. Elduindarrak, bestalde, bere lana egiten jarraitu zuen, hau da, luze jokatu zuen Ezkurraren hutsak eragitzeko asmoz, eta aurkaria ez bezala, oso ondo egokitu zen Labrit pilotalekura.

Sakearekin Zeberio lehenerrenta lortu zuenean hautsi zen finalerdia, 7-14ko emaitzarekin. Doneztebekoak partidaren sartzeko ahalegina egin zuen, eta tarte zertxobait murriztea lortu bazuen ere, ezin izan zion buelta eman. Partida erdira iritsi zenean 15-30 adierazten zuen markagailuak Zeberioaren alde, harmailetan jendea ezin sinetsi zegoelarik Ezkurraren maila eskasa ikusita. Azkenean 35-22 bukatu zen norgehiagoka. Partida hau irabazita, Elduingoak zorrak kitatu dituela ere esan daiteke, abuztuan Bananakako Txapelketa Nagu-

siko finalerdietan, Ezkurraren aurka jokatu zuenean, berak ikusi baitzuen porrota. Etzi jokatu duen finalerako bai fisikoki bai eta moralki ere oso ondo aurkitzen dela azaldu dio HITZARI Elduingoak. «Joko puntu onarekin ari naiz azken hila-beteetan eta hori mantendu behar dut», adierazi du; bestalde, txapela janzteko itxaropena baduela eta finalaren aurrean ilusio handiarekin dagoela gehitu du. Urrutia finaleko aurkariari buruz, «polita izango da bere kontra jokatzeko pike sanoa baitugu gure artean», esan du; izan ere berarekin lortu zuen txapela binakakoan eta «oso lagun» egin ziren orduan.

Binakakoan ere, aurrera

Buruz burukoarekin batera, Binakako Txapelketa ere ari dira jokatzeko, eta hor ere maila ona ari da erakusten *Zeberio II.a*. Izan ere, iragan igandean lortu zuten berak eta Auzmendik finalerdietako lehen puntua *Altuna II.a* amezketarrak eta Urrutia Saldiasoak osatzen duten bikotea garaitu ostean. Zeberio eta Auzmendi 38-31 ari ziren galtzen, baina azken tantoetan buelta eman ahal izan zioten. Larunbatean jokatuko dute hurrengo partida eta hori irabaziz gero finalerako sailkatuko lirerateke.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Urtarrilaren letik aurrera, lantegietan ezin izango da erre, eta zenbait tabernatan egokituriko guneak jarri beharko dituzte. Zer iruditzen zaizu? Eman zure iritzia gure web orrian.

iragarki laburrak ▶

OHARRAK

Harremanak. Francisca Garmendia Sarasola sendiarekin harremanetan jarri nahi dugu. Deitu, arren, 943 62 48 60 telefono zenbakira.

GABONAK ▶



Goian, Belauntzako gazteak Olentzeroren eskutik opariak jasotzen. Behean, abestera irten ziren Muxkil elkarteak. HITZA

Olentzeroren etorrera, festarako aitzaki

Belauntzan irrikaz itxaron zuten Olentzeroren etorrera. Bertako Kultur Etxean agertu zen, eta han zituen herriko gazteak zain opariak jasotzeko. Ondoren, gurasoak eta haurrak askaria egiteko bildu ziren. Adunak ere ederki ospatu zuten Gabon Eguna. Muxkil elkarteak antolatuta kantari ateratu ziren 26 lagun inguru etxetik. Ondoren, Uztartza aterpetxean egin zuten bazkaria, trikitilari, saxofoilari, bertsolari eta abarrek alaiturik. Halaber, «egoerak hala behartuta herritik kanpo zaudetenei», eskaini nahi izan zieten eguna. Gustura azaldu dira elkarteak, jende ugari bildu baitzen ohiko hitzorduan.

BELAUNTZA ▶

Pilota eskolaren jaialdia egingo dute etzi

Festa berezia antolatu dute etzi herrian, pilota eskolaren jaialdia, hain zuzen ere. 16:00etan emango zaio hasiera ekitaldi bereziari, eta Belauntzako pilotalekuan egingo dute. Behin jaialdia amaituta, txokolatea eskainiko diete bertaratzen diren guztiei. Belauntzako Udalak bertako nahiz Tolosaldeko neskak eta mutilak gonbidatu nahi ditu jaialdian parte hartzera.

BERASTEGI ▶

Gabonetako saskien zozketan zenbaki sarituak

Guraso elkarteak urtero sasoi honetan egiten duen moduan, hiru saskiren zozketa egingo du. Ondorengoak dira zenbaki sarituak: abenduaren 19an: 0537; abenduaren 20an: 5336 eta abenduaren 21ean: 0286. Bestalde, Gabonetako egunetarako herrian ludoteka zerbitzua antolatu dutela azaldu dute. Zerbitzu hori egunero eskainiko da arratsaldeetan, 15:30etik 17:30era.

ARESO ▶

Olentzero itzuli da berriz Plaza Zaharreko bere etxera

Herriko taldeak batu eta berria egin dute; bitartean «ikerketak» egiten ari dira

J. ASTIBIA

Herenegun arratsaldeaz geroztik, Olentzero berriz ere Plaza Zaharreko bere etxean da: herriko kultur taldea, guraso elkarteak, trikitilariak, eta nahi izan zuen guztia elkartu eta «berria egin» zuten eta zegokion lekuan jarri, «festa giroan». Halaxe jakinarazi zuten bertatik atzokian.

Bitartean, Gabon Gauean Guardia Zibilak Olentzero bahu izana («ikertzen») hasiak ziren. Izan ere, herriko alkatea atzo eguerdian bertan bildu zen Vicente Riparekin, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariarekin, eta, beraz, Guardia Zibilaren arduradun nagusiarekin, alde batetik eta bestetik, arratsaldean, Guardia Zibileko goi agintari militar batekin, eta «herritarren ordezkari modura eta zeharkako lekuko gisa», gertaeraren kontakizuna eginda, «barne-ikerketak egin eta beharrezko neurriak hartu eta horrelakorik ez dela errepikatuko» agindu ziotela adierazi zion berak HITZARI.

Bide judizialek ez omen dute joko «froga grafikorik ezean, ez lukeelako jarraipenik izan», zionez.

ARESO ▶

GHP berrira egingen duten ibilaldirako izen-ematea

J. ASTIBIA

Etzi, osteguna, dira joatekoak Barakaldon ezarri duten Gabonetako Haur Parke berrira. Aresoko umeak eta euren gurasoak. Autobusez joanen omen direnez, izena eman behar da okindegian, Sastinean edo elkartean. Gaur da atzen eguna. 08:15ean aterako dira Plaza Zaharretik, egunpasa.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Euskalduna behar dugu!

Leitzako Amazabal institutuko Guraso Elkartek, institutuko atezain lanpostua aldi baterako betetzeko prozedura dela eta, honakoa salatu nahi du:

Nafarroako Goneruko Hezikuntza Departamenduak, institutuko atezainaren baja-aldia betetzeko bidali duen ordezkaria ez da euskalduna. Bigarren aldia da euskaraz ez dakien ordezkaria bidaltzen dutela dagonekoz, eta lehen ere, dagokion lekuan, egoera honen salaketa eta hori konpontzeko eskaera egin dugu. Baina, berriz ere, egoera berean suertatu gara. Institutuarekin harremana dugun guztioi gure esku-

bideak murriztu dizkigute berriz. Kausa ezaguna da, eta, zorritarrez, ohikoa Nafarroako administrazioan: hizpide dugun lanpostu horretaz jabetzeko ez da nahitaez euskara jakin beharrik, merezimendu gisa soilik hartzen dute kontuan.

Ahalegin handia egin da Leitzako ikastetxeetan, herrian egin den bezala, euskara bertako lan eta zerbitzu hizkuntza bihurtu dadin, eta ez da atzera egiten hasteko unea. Gai hau ez da txikieria: jende askoren lana eta izerdia eragin baitu euskara normaltasunez erabilteza iristek.

Ez dugu, jakina, egokitu zaigun atezainarekiko kezaririk, langile modura, bere lana ongi betetzen du; arazoa, ordea, hizkuntza da, ez baita euskaraz,

eta horrek ikastetxeko egueroko funtzioamenduan eragin zuzena du.

Egoera tamalgarri honen ardurua eta erantzukizuna, Nafarroako Gobernuarena da. Guk, gure hizkuntza eskubideen defentsan, eskaera argia egin nahi dugu: Leitzako Amazabal institutuko atezaina euskalduna izatea, ikastetxeko bizitza, oso-osorik, euskaraz egiten jarraitu ahal izan dezagun.

Esan bezala, beraz, egoera honi irtenbidea bilatu behar zaio, eta horretarako urrats eraginkorrak lehenbailehen eman daitezkeen eskatzen dugu, guztion, euskal hiztunonak ere bai, eskubideak bermatuz.

KARMELE LAZKANO, LEITZAKO
AMAZABAL B.H.I.KO GURASO
ELKARTEAREN IZENEAN ▶ LEITZA

LEITZA ▶ GIZARTEA



Pakita Urkiolari, besteak beste, jantokiko ikasleek egindako erretratoa oparitu zioten. JAIONE ASTIBIA

Amazabalek omena Pakita Urkiolari

36 urte egin ditu Leitzako institutuko sukaldari; Gabonetako festan, eskerronezko omenaldia egin diote, ezustean

JAIONE ASTIBIA

Amazabal institutuan Gabon festa egin zuten hilaren 22an, eta ikastetxeko kide adierazgarri bati beretzat «ezustekoa» ere izan zen eskerronezko omenaldia egiteko baliatu zuten: Pakita Urkiola sukaldaria omendu zuten; 36 urtez sukaldari izan da bertan, eta, orain, gaur, hain justu ere, jubilatza doala eta, Amazabaleko kideek gogoan izan zuten.

Horrela, Pakita Urkiola anderea sukaldetik pilotalekura

eramanarazi zutenean, berak jaso zuen txaloaldiarekin, eta ondoren eman zizkioten hainbat orogarririk osatu zuten omenalditxoak, ikasle eta irakasle talde batek berari eskainitako *Aurreksua* tartean zela: ilobak emandako koadroa, jantokiko ikasle batek egindako erretratoa...

Gustura ageri zen bera ekitaldiaren ondoren. «Eskola sortu zenetik aritu naiz hemen lanean», argitu zion HITZARI berak. Hainbat eta hainbatentzat prestatu izan ditu otorduak,

«garai batean gosariak ere ematen genituen, eta asteburutan ere interno gelditzen zirentzat otorduak prestatzen genituen», erantsiz. Berak jateko ohituretan alde handia harriatu duela ere azaldu zigun, eta, alde horretatik, «arazo handia» dagoela baieztatu: «Ez dakigu jaten, arroza eta makarroiak, eta razioa hori bai, baina barazkiak eta eltzaria batre ez. Hori lastima ikaragarria da!», azaldu zuen.

Orain lan honetan ez, baina, «zer egin bilatuko dut», zioen.

LEITZA ▶

Asketa-ren zozketako zenbakiak ezagun dira

Orantzaro egunean jendaurrean zozketa eginda, 15 eguneko epea sariak jasotzeko

J. ASTIBIA

Asketa abesbatzak aurreko asteburu honetan saldu zituen boletoen zozketak, Orantzaroren ongiotzariaren ondoretxoan egin zituen eta irabaztun suertatu ziren zenbakiak zerrenda eskura jarri ditu. Honako hauek dira: lehenengo saria, gorri koloreko 0714 zenbakiarentzat; bigarren saria, gorri koloreko 3.481-arentzat; eta hirugarren saria, berde koloreko 6.077arentzat.

Antolatzaileek ohartarazi dutenez, sariak jasotzeko 15 eguneko epea omen dago zozketa egin zutenetik.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko abenduaren 28a, asteazkena ▶ III. urtea

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Adolfo Aristrainen *Roma* filma, 21:30ean, Gaztetxean.
Alegia. Ume festa, 17:00etan, Gaztetxean: jolasak, talo jatea, mikrofono libre...
Anoeta. Ingurumenari buruzko kale dinamika, 17:00etan, herriko plazan.
Ibarra. Trikuharri taldearen *Inaxitoren ametsak* bertso antzerkia, 11:30ean, Benito Izagirre kultur etxean.
Leaburu. *Hitzak patriketan*, Gazte Gelan, 11:00etan.
Tolosa. Gabonetako Haur Parkea Ferialekuan, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era.
Tolosa. Laskorain ikastolak antolatutako Merkatu Txikia Kultur Etxean, Sahara eta Boliviaren alde. Saharara bidaltzeko elikagaiak ere jasoko dituzte.
Tolosa. VIII. San Silbestre Elkartasun krosa izango da hilaren 31n Alde Zaharrea 16:00etan. Izen-ematea, Aralar Kirolak-en edo egun berean Berdura plazan.
Tolosa. Basque Fire Department, Bonberenean, 22:30ean.
Tolosa. II. Gazte Astearren baitan, futbol neurketak 10:00etan eta pintxo lehiaketa 16:30ean, Kultur Etxean.
Tolosa. Hitzak I. Marrazki Lehiaketa 3 eta 12 urte arteko haurrentzat: *Nola ikusten duzu zure herria?* Marrazkiak Hitzan entregatu behar dira. Urtarrilean Alde Zaharreko dendetan erakutsiko dituzte.

ERAKUSKETAK

Alegia. Juani Alkortaren margolanak daude ikusgai Jubilatuen tabernan.
Tolosa. Alejandro Tapiaren pintura erakusketa Aranburu Jauregian.
Tolosa. Ana Jesus Ansorena tolosarraren keramika lanak daude ikusgai eta salgai Lanbroa tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaroz auzunea, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Handik eta hemendik

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Eskualdeko haurrek egindako beste lau marrazki bildu ditu HITZAK; Olatzek, Pablok, Erikak eta Mariak egindakoak dira



AMEZKETA ▶

Olatz Galarza Amiama (9 urte).

«Asko gustatzen zaizkit parkeak», esan du Olatz Galarza lagun amezketarrak. Marrazki polit hau bidali digu berak.



IBARRA ▶

Erika Benitez (8 urte).

«Nere etxe ondoko taberna da honakoa», dio Erika Benitez ibartarrak. 8 urteko lagunak marrazki polita bidali du HITZARA.



BELAUNTZA ▶

Pablo Jauregi Lopez de Murillas (8 urte).

«Hau Belauntzako Eliz Alde frontoia da. Larunbatero hara joaten naiz pilotan ibiltzera», dio Pablo Jauregik bere marrazkian.



TOLOSA ▶

Maria Luque Mateos (8 urte).

«Neure eskola da hau», dio Maria Luquek. Samaniego ikastetxea bera eta liburutegia marraztu ditu. Bidali zeuk ere zeurea!

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!